

noaua

"GARRANTZITSUA IRUDITZEN ZAIT HERRIAN KIROL PROBA UGARI IZATEA"

Imanol Agirretxeren esanetan, "Irisasi BTT Hotzak Akabatzen proba onuragarria da herriarentzat" / 12-13 or.



ARGAZKIA: JOSEBA UNDIANO




ODOLAREN MINTZOA

Odolaren Mintzoak herriko musika taldeen babesarekin esango du agur / 11



GARAZI ARTOLA

Garazi Artola: "Emakumeen aldeko festa bat da Lilatoia" / 14



NOAUA

IX. Gipuzkoako Orientazio Liga Usurbildik abiatuko da / 20



NOAUA

Ostiral honetan, 'Katedraleko meza' ikuskizuna Salvatore elizan / 22

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

5. URTEURRENA!

MILA ESKER ZUEN KONFIDANTZAGATIK!

SALEROSKETA & ALOKAIUA

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.eus
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL



ANDATZA TABERNA

*Irekiera
berria!*

**EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK**

Ostegunetan

Pintxo pote!

8:00-20:30 Astelehenerik - Asteazkenera **BAZKARIAK**
8:00-23:00 Ostegunetik - Igandera **BAZKARI eta AFARIAK**

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027

ORIANTE BHI

Matrikulazio epea OTSAILAK 3tik 14ra

- 12-18 urte bitarteko ikasketak
- DBH - Batxilergoa
- Jangela zerbitzua
- Euskal kultura eta kulturartekotasuna bultzatuz
- Hezkidetza
- Agenda 2030
- Mugikorrik gabeko ikastetxea
- ...



ORIANTE
Institutua



ATE IREKIAK

OTSAILAK 5 18:00-19:00

Landaberri eraikinean!

943 899494

info@oriarte.eus

Landaberri eraikina (DBH1/2)

Pintore kalea 2

Larrekoetxe eraikina (DBH 3/4 eta Batxilergoa)

Buenos Aires aldapa 1

Lasarte-Oria

www.oriarte.eus

Txotx boladaren hasiera Saizarren

Sagardotegien irekiera garai betean gara egunotan. Urtarrilaren 16an, Saizarkoen txanda izan zen. Hamaikagarraren irekiera ekitaldia ospatu zuten Kalezarko sagardotegian. Ohi bezala, hurbileko nahiz urrunagoko aurpegi ezagun ugari erakarri zituen hitzorduak.

Urtero, pertsona ezagun bat gonbidatzen dute txotx irekierara. Saizarko sagardo berria dastatzen hasteko ohorea izan duena aurtengoan, Perico Delgado txirrindulari ohia izan da, egun kirol esa-

tari lanetan diharduena. Trikiti doinuen artean heldu zen, Julian Iantzik aurkezturiko ekitaldira joandakoekin kalejiran. Korrontzi taldeko trikitilarien doinupean, aurrekoa dantzatu zieten taldeko bi dantzari gazteek. Segidan, tradizio bilakatu den moduan, Andoni Egañak bertsoa bota zion eta orduan heldu zen Saizarko sagardoa edalontzira zerbitzatu eta edalontziak goratuz, "gora Saizarko sagardo berria" ahoskatu zuen unea, ekitaldira joandako hedabideen aurrean.



Perico Delgado txirrindulari ohia izan zen irekiera ekitaldiko protagonista.

Garbigune mugikorra, Zubietan

Urtarrilaren 23tik aurrera, garbigune mugikorra Zubietan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Urtarrilaren 30ean osteguna, garbigune mugikorra Txokoaldera eramango dute.

Kzguna arratsalde zabalduko dute otsailean

- Otsailak 3-14, 18:00-20:00 "Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi".
- Otsailak 17-28, 18:00-20:00 "Ofimatika tresnak-LibreOffice".

Informazio gehiagorako:
943 023 684

Errefusaren bilketa egutegiak eskuragarri

Bi igandean behin biltzen da hondakinen zati hau. Otsailaren 2an eta 16an bilduko da berriro. Abenduaren 20ko NOAA!rekin batera, errefusa biltzeko Usurbilgo Udalaren 2025eko eta 2026ko egutegia jaso ahal izan zenuten. Eskuratu ez baduzu, NOAA! K.E.-ren egoitzan duzu.

Mintzalagun egitasmoan izena emateko epea, ixtear

Euskaltzaleen Topaguneak eta Udalak babesturiko egitasmorako izena urtarrilaren 27ra arte eman ahalko da, esteka honetako formularioa beteta: <https://forms.gle/PtDQmmvkZrJw97Sv5> Bestela, eskuorriak dituzue eskuragarri Potxoenean eta Etumeta AEK euskaltegian.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkari koordinatorra:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbegozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



LUIS ARANALDE

Solidaritatean masterra

A benduaren 13an aldakatik operatu ninduten. Dena oso ongi atera da eta errehabilitaziorako seminarioko apaiz jubilatuen egoitzan gela polit bat eskaini didate. Bertan hilabete pare bat pasatzeko asmoa dut. Arduradunengan konfiantza osoa jarrita etorri nintzen eta ez dute nirekin huts egin, alajaina! Erizainak, emakumezkoak nahiz gizonezkoak, zein baino zein egokiagoak: adeitsuak, gertukoak, profesionalak goitik beherraino. Ez dut ikusi aurpegi txar bat oraindik, alderantziz, gozo-gozo tratatzen gaituzte, gaixo bakoitzaren arrarotasunak eta maniak ahalik eta egokien pairatuz. Zaintzailen hauengan profesionaltasuna eta bokazioa sumatu ditut. Hainbesteko entrega eskatzen duen lan hori ezin da egin itxurazko soldata bat irabazteagatik bakarrik. Beste balore batzuk ere landu behar dira derrigorrez.

Lekuko izan ditudan giza balore horien haritik, abenduaren erdialdera berri bitxi bat irakurri nuen: Legorretako bikote batek odol emaile bezala urrezko ezteiak ospatzen zituela. Alegia, berrogeita hamar urtez bizia erregalatzen musu-truk, dohainik, debalde. Gaurko gogoeta albiste honen gainean egin nahi nuke.

Gipuzkoako odol-emaileen elkarte 1964an sortu zen eta biziak salbatzen jarraitzen du.



"Odola emanez bizia salbatzen dugu eta askoren osasuna hobetu".

Badirudi doan emandako odola jasotzea eskubide bat dela, baina hori ez da horrela izan. Garai batean oso jende gutxi-ren esku zegoen odola jasotze hori, luxu handia zen. Egun, guztion eskubidea dela esan dezakegu: besteen odola jaso eta bizitzen jarraitzea guztiz normalizat hartzen dugu.

Legorretako bikote solidario hau Axunek eta Mielanjelek osatzen dute. Solidaritatearen gene hau DNAn daramate nonbait eta hori bera transmititzen jakin dute. Beren seme-alabak ere zain zeuden 18 urte noiz beteko aitaren eta amaren filosofiari jarraitu eta odol-emaile bihurtzeko. Lauren artean 120 litro odol eman dituzte. "Behin ematen hasi

"INOIZ BAINO GEHIAGO BEHARREZKOAGOA DUGU DOAKO EKIMEN SOZIALAREN INDARRA"

ginen eta ez gara gelditu, gure artean tradizio bat bihurtu da", dio Mielanjelek. Inoiz huts egin badute, "bekatu bat" egin balute bezala sentitzen omen dira. Esaldi horrek sekulako grazia egin dit. Ekimen honen garrantziaren mezua garai batean postontziz postontzi edo ahoz aho zabaltzen zen. Orain, batez ere gazteen artean, sare sozialen bitartez egiten da. Solidaritatean oherrezko matrikulaz graduatuta dagoen bikote honen filosofia biziki soil da. Gure ekimen honek bi gauza adierazi nahi ditu: batetik, osasun bikaina daukagula; eta bestetik, odola emanez bizia salbatzen dugula eta askoren osasuna hobetu.

M.L. Kingek honako hau esaten zuen: "Bizitzaren galdaririk iraunkorrena eta larriena hau da: zer egiten ari zara inguruko alde?". Hain zuzen ere herri baten duintasuna bere boluntarioriaz ematen dion garrantzian neurtzen omen da: zerbitzuan, altruismoan, solidaritatearen eta doakoaren kulturean.

Lehen ere aipatu izan dut foro honetan nire lagun zahar Joxe Agustín Arrieta. Honela zioen duela gutxi: "Mundu nahiko hotz eta merkantilizatua bizi gara. Horregatik inoiz baino beharrezkoagoa dugu doako ekimen sozialaren indarra". Ea bada, ospatu berria dugun Gabonetako solidaritatearen izpiritua gure kontzientziak berpizten dituen.

Odol-emaileen ospakizunak, azken txanpan

50 urte betetako Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak urteroko bazkaria antolatu du igandearako, urtarrilaren 26rako. Izen-ematea itxita dago. Ordura arte, ikusgai izango duzue, bestalde, asteotan Sutegin eseki duten erakusketa.

Odola emateko deialdia

Oraingo honetan Usurbilgo Odol-Emaileen Elkartetik ez, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta Osakidetzak egin dute odola emateko deia. Izan ere, "odol-osagaien erreserba-mailak ohiko mugetatik behera daude, eta egoera horri eragiten dio, gainera, urtaro honetan izaten den birus eta arnas infekzioen hazkundea". Horregatik, "Osasun Sailak eta Osakidetzak laguntza eskatu diete noizbait odola eman duten pertsoneri, baita urratsa ematea pentsatu baina oraindik egin ez dutenei ere, behar duten paziente guztiei arreta medikoa bermatzeko". Usurbilen martxoaren 3an izango da hurrengo odol-ematea, beste udalerrietan noiz eman daitekeen ikusteko donantesdesangre.eus atarian kontsulta daiteke.

Urtarrilaren 26ra arte

- Erakusketa Sutegin.

Urtarrilak 26, igandea

- 14:00 Bazkaria eta odol-emaileentzako oroigarrien bana-keta Artzabalena.

Martxoak 3, astelehena

- 16:30-20:10 Odol-ematea Udarregiko erdiko aretoan. Antolatzailea: Usurbilgo Odol-Emaileen Elkarte.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko enreak, ogitartekoak, raziok,
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

Okindegia-Gozetegia
LABE-GOXO

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

Zazpi urte, pentsio duinen aldeko borrokan

Urtarrilaren 15ean bete zituzten zazpi urte, pentsio duinen aldeko borrokari ekin ziotenetik. Data horretan, "mobilizazio masibo eta iraunkorren hasieraren urteurrena ospatzen dugu".

Urtarrilaren 15ean bete zituzten zazpi urte, pentsio duinen aldeko borrokari ekin ziotenetik. Data horretan, "mobilizazio masibo eta iraunkorren hasieraren urteurrena ospatzen dugu".

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendutik jakinarazi dutenez, "mobilizazio horiek Pentsio Sistema Publikoaren aurkako jazarpen eta eraiste-estrategia, zein gure pentsioak izugarri murrizten zituzten erreformak aldatzea lortu zuten, hein batean bederen". Orditik, "zazpi urte daramatzagu kalean lortutakoa ospatzen, lortzeke dauden oinarriko aldarrikapenei kasu egin diezaiten eskatzen eta osasungintzan zein pentsioetan

negozioa egitea helburu dutenen eraso berriak ekiditen".

Abiatu berri dugun urte berri honi begira, eskuartearen dituzten erronken berri eman du Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua. "Aurtengo lehen sei hilabeteetan, premiazko eta ezinbesteko borroka dugu irabazteko. Pentsiodun guztiei gutxieneko pentsioa Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekin parekatuko duten diru-sarrerera nahikoak bermatzea, eta pentsioetan generoen arteko aldea murrizten laguntzea".

Sinadura bilketa

Testuinguru horretan, batetik, lau hilabeteko epealdia izango duen sinadura bilketari



Urtarrilaren 13an elkarretaratea egin zuten Donostian.

ekin zioten abenduaren 24an, Gasteizko Eusko Legebiltzarrean "erregistratutako Herri Ekimen Legegilearen alde eginez, bertan eztabaidatu eta bozkatzeko onartua izan dadin eskatzeko, hain zuzen ere. Mobilizazio hau, 2018an egindakoak bezain garrantzitsua da. Hamarnaka mila pertsonak proposamena sinatzea da gure asmoa, alderdi politikoa bakar batek ere ez dezan proposamenaren aurka egin".

Hurrengo urratsa, "gutxieneko pentsio bat finkatzea"

Nafarroan, bestalde, "gutxieneko pentsioaren osagarriari dagokionez, abenduaren 19an Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru

Legean egindako aldaketak positibotzat jotzen ditugu, 14 ordainsaritan 1.035 euroko osagarria bermatzen baitute, baina aldi berean, ez dira nahikoak. Zentzu horretan, hurrengo urratsa gutxieneko soldataren parekoa den gutxieneko pentsio batean kokatzen da".

Erronka hauen helmugara nola iritsi argi du Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua. "Badakigu nola lortu guri kasu egitea. Denok batera (gizonak, emakumeak, langileak, pentsiodunak, gazteak) lortuko dugu. Pentsioak eta soldata duinak, pentsioa eta gutxieneko soldata, bizi baldintza duinak eskuratzeko aukera emango digutenak. Orain!".

IKA-MIKA

Aurtengo marka guztiak hautsi ditu

NAFARTARRAK

Gustura geratu dira Sohuta eta Basaburuko ikastoletako gurasoak aurtengo kanpainarekin, eta baita saski hauek osatzen

diharduten ekoizleak ere. Beste urte batez, saskien salmentekin ibili gara eta aurtengo emaitzekin gustura gaudela esan dezakegu (2.500 saski banatu dira Euskal Herri osoan). Gure inguruko herrien kasuan, elkarlanean

ibili garenon artean, 12.000 eurotik gora lortu ditugu. Eskerrik asko Usurbilgo eta inguruko herriei dinamika hau sostengatzen jarraitzeagatik. Datu hauek ikusita, gure herrietan oraindik elkartasuna geratzen dela ikusi dugu.

Amaitzeko, saski hauek erosi dituzuenoi, banaketan laguntzen ibili zaretenoi eta gainontzeko bidelagun guztiei eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. Espero dugu hurrengo kanpainan ere elkar ikustea! Eskerrik asko Usurbil.

ARANKA BERRIKUNTZAK
 · Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
 · Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
 · Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
 ANTON BERNAL RUIZ DE OÑA
 EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

ZENDOIA ENEA taberna
 Kale Nagusia 35, Usurbil



Xabi Ibarra diseinatzaile grafikoak Santuenea Kultur Elkarteak antolatuturiko logotipo lehiaketa irabazi berri du.

"Hurbildu daitezela denak auzora, bizitza egitera"

XABI IBARRA DISEINATZAILEA

Santuenea Kultur Elkartea indartsu dabil azken aldiak kultur ekimenak antolatzen, eta hemendik aurrera logotipo eta guzti arituko dira lanean Xabi Ibarrek egindako diseinuarekin.

Santuenea Kultur Elkartearen logotipo lehiaketan, zuk aurkeztutako diseinua izan da irabazle. Nolatan erabaki zenuen partehartzea?

Nik nahiko berandu jakin nuen lehiaketaren berri. Auzoa txikia da, eta azkenean denok izaten dugu halako kontuen berri.

Nik diseinu grafikoak ikasi nuen lau urtez Ceinpron, Donostian.

Ez nabil horretan lanean, baina tarteka lantxoak egiten ditut. Adibidez, Txapeldun taberna zenaren irudi korporatibo osoa egin nuen. Mizpiradi sagardotegia zein Madafa Tattoo estudioarekin ere lanean aritu naiz. Neure kabuz egiten ditut lan horiek, eta auzoan halako aukera izanda, gustatzen zait parte hartzea. Auzoari niretzat zein garrantzitsua den erakuste-

ko modu bat da nolabait. Zaila da sentitzen dudanari hitzak jartzea, baina halako zerbait dela esango nuke.

"NIRETZAT, AUZOA ZEIN GARRANTZITSUA DEN ERAKUSTEKO MODU BAT DA"

Nondik hartu zenuen ideia?

Santuenea Elkarlaneko logotipoa egin nuen eta horretan oinarrituta egin dut Santuenea KErena ere. Tipografia bera dute bi lanek, nahiz eta gaitzontzekoa ezberdina duten. Lehen lan horretan, auzoko ezkutu modukoa egin nuen, armari baten antzeko zerbait. Bertan, auzoko lekurik esanguratsuenak bildu nituen: zubia, erri ingurua, baratza... Koloreetan laranja nagusitu zen, beti esaten delako Santuenea infernua dela. Ideia horretatik atera zen logotipo berria, tipografia bera, baina buelta bat emanda. Haur eta nagusientzat antolatzen ditu ekintzak Santuenea KEk, ez haurrentzat bakarrik, eta logotipoarekin poztasun hori ere erakutsi nahinuen koloreen aukeraketaren bidez: arrosa, berdea eta urdina. Nagusiak adierazteko tipografia serioagoa erabili dut, eta haurren poztasuna adierazteko kolore biziak eta formak.

Nola landu zenuen? Eskuz marraztu ohi duzu edo ordenagailuarekin aritzen zara?

Ordenagailuarekin egiten dut lan. Tabletarekin ez dut lanik egiten eta eskuz ere ez. Ordenagailuan Adoberen paketea daukat Illustrator, Photoshop eta Indesign aplikazioak barnebiltzen dituenak, eta horrekin egiten dut lan. Agian, eskuz paperean lehen momentuan zerbait egin dezaket, baina lanketa ordenagailuz.

Lehiaketa irabazteagatik zein sari lortu duzu?

Bai, lehen esan bezala auzoari halako ekarpena egiteak bete egiten nau, eta horrez gain, Esnaola janari dendan gastatzeko 150 euroko bonua.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
EIRA KUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

txirriStra
TABERNA
·PLATER KOMBINATUAK
·BOKATAK ·PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

→ **Santuenean azken aldian gauza asko ari dira antolatzen elkartean. Jendea partehartu eta antolatzeke gogotsu ikusten duzu?**

Eskertzekoa da elkartekoek egiten duten lana gabonetako ekitaldiekin eta urtean zehar haur zein nagusiekin egiten dutena.

Bai euren bidez, bai jai batzordearen, bai Santuenea Elkarlaneanen bidez saiatzen ari gara auzoa berpizten eta lehen zuen bizitza hori ematen. Badirudi auzoa zentzu askotan hilda dagoela, baina Santuenean bizitza dago eta gauza asko egin ditzakegu. Bi taberna dauzkagu, denda bat, sagardotegia eta elkarte. Bizitza hori mantendu eta indartu egin nahi dugu. Izan ere, azken urteetan kanpotik auzora bizitzera etorritako jendeak ez du bizitza egiten auzoan.

Beraz, gure asmoa da auzoa ez izatea lotara etortzeko leku bat bakarrik, baizik eta bizitza egiteko leku bat.

santuenea kultur elkarte



Xabi Ibarrek Santuenea KE-rentzat sortutako logotipoa.

Zeuk ere parte hartzen duzu elkartean?

Elkartean ez, baina jai batzordean nabil. Zaharrenetakoa naiz eta zentzu horretan hartzen dut parte, auzoaren berpizte lan horretan, gazteak animatuta. Elkarlanean dihardugu lanean auzoko gainontzeko eragileekin eta oso harreman estua daukagu denok. Auzoan badaukagu elkarlaguntzeko ideia hori eragile eta auzotar guztion artean. Jai batzordean badi-

rudi erreleboa badatorkigula atzetik eta hori oso garrantzitsua da etorkizuna eraikitzen jarraitzeko.

"AUZO ERAGILEOK SAIATZEN ARI GARA SANTUENEA BERPIZTEN ETA LEHENAGOKO BIZITZA EMATEN"

Elkarte sortu aurretik ez ziren ekitaldi asko antolatzen auzoan, ezta?

Elkarte sortu zenean ez zegoen egun dagoen lokal berean. Goian dagoen lokalean hasi zen, lehen eskola zen horretan. Ni neu haurra nintzela, eskola horretan hasi nintzen ikasten HHn, eta azkenak izan ginen gu. Oso auzo-giro polita izaten genuen bertan. Ondoren, itxi egin zuten eta lokalean elkarte sortu berria hasi zen lanean. Garai haietan, elkarterik oraindik ez zegoenean, auzoak bazuen beste martxa bat eta gauza gehiegi antolatzeke beharrik gabe jendea kalean egoten zen eta auzo-giro bikaina egoten zen. Gerora, egon dira urte batzuk auzoa oso burumakur egon dena, eta horri buelta ematea elkarteari zor diogu, neurri handi batean. Merezimendu handia dute eta eskertzen dugu euren lana, beraz, anima daitezela denak auzora hurbiltzera.

USURBIL 58 Dokumentala



Altxor txiki bat, opari handi bat

2023ko udazkenean, Usurbilgo irudi zirraragarri batzuk topatu genituen Euskadiko Filategian. Juan Illarramendik grabatu zituen 1958 eta 1960 urteen artean. Orain arte ikusi gabeak. Sutegiko estreinaldi arrakastatsuen ondoren, dokumentala eskuragarri duzue.

Dokumentala, salgai

'Usurbil 58' argitalpena DVD batekin eta USB memoria batekin osatzen da.

Batean zein bestean, bi artxibo topatuko dituzue:

- Juan Illarramendiren irudi originalak. 20'11".
- Irudi horiek baliatuz osatu dugun dokumentala: 51'16".

NOAUA!ko bulegoan, **Lizardi** eta **Laurok** liburudendetan salgai.

Prezioa: 10 euro.

*NOAUAko bazkideek 8 eurotan eskura dezakete, baina soilik NOAUA!ko bulegoan.



Ostiral honetan, 'Katedraletako meza' ikuskizunean, Ana Belen Garcia organoa joko du Salvatore elizan. KLASSIKBIDEA.EUS

"Dударik gabe, Usurbilgo organoa harribitxi bat da"

ANA BELEN GARCIA ORGANO-JOLEA

Aurten 40 urte beteko ditu Zumarte Musika Eskolak eta ekitaldi ugari aurreikusi dituzte. Horien artean, ostiralean 19:00tan hasiko den 'Katedraleko meza' Salvatore Parrokian. Ana Belen Garcia organo-jole andoaindarrak gidatuko du emanaldia.

'Katedraleko meza' ikuskizuna nola definituko zenuke?

Gorka Mirandak zuzendutako Easo Gazte abesbatzarekin batera, Licinio Reficeren 'In nativitate B. Mariae Virginis' meza eskainiko dugu, organo bakarreko bi piezarekin. Meza hori Easo Abesbatzako Kaper Gregorianistaren interbenzioarekin tartekatuko da, Demetrio Esnaolak zuzenduta. Santos Sarasolak, Easo Abesbatzako Kaper Gregorianistako kideak, kontzertua eratu zuen. 1905ean Pio X. Aita Sainduak "Motu Proprio" izeneko dekretu bat argitaratu zuen eta bertan elizetan erabiliko zen musikak nolakoa izan behar zuen adierazten

da. Elizak otoitz lekuak zirenez, jotzeko eta kantua laguntzeko instrumentua organoa eta kantua berriz gregorianoz edo gregorianoaren oinarriaz konposatzen ziren mezak. Horietako konpositore bat da Licinio Refice, Easo Gazte korua kantatzen duten Ama Birjinaren ohorezko mezaren egilea. 70 urteen gainera diren gogoratuko dituzte XX. mendearen erdialdetik aurrera ospatzen ziren meza solemneak. Katedrala da, berez, gotzainaren egoitza propioa. Eliz-egutegiko ospakizun nagusietan, gotzainek gidatzen zituzten mezak eta horietan, gregoriano eguneko kantua eta aipatu konpositore horien

mezak kantatzen ziren, solemnitarekin. Beraz, nagusiki katedraletako mezak ziren.

Easo Gazte eta Easo kaper gregorianoaren ahotsak izango dituzu lagun.

Nire ibilbide luzean Easo abesbatzako pianista eta organis-

"EASO GAZTE ABESBATZAK ETA EASOKO KAPER GREGORIANISTAK ERE HARTUKO DUTE PARTE"

ta gisa (ia 20 urte), kontzertu ugari eman ditugu, eta "katedraleko meza" proiektuak, zehazki, arrakasta handia izan du 2024an, honako hauetan egin baititugu: Orion, Lasarten, San Sebastian Martirin elizan (Donostian), Errenterian eta Pasai San Pedron. Aipatzekoa da Easo Abesbatzak 10 koru ezberdin dituela eta bakarka eta elkarrekin kantatzen dutela kontzertuetan. Konbinazioak asko izan daitezke eta honetan, eliz musika denez, Easo Gazte eta Kaper Gregorianista biltzea zen formatu onena.

Usurbilen izan zara lehenago?

Hainbat kontzertu eskaini ditut. Duela urte askotatik ezagutzen dut Usurbilgo Caillaillé-Coll Mutin organo zoragarria. Gogoan dut niretzat oso hunkigarria izan zen kontzertu bat, Musika Hamabostaldiko organo zikloaren edizio batean eskaini nuena. Instrumentu horretarako pentsatutako programa bat izan zen, eta operen transkripzioez osatuta zegoen, besteak beste. San Salvatore parrokiako organo paregabearen historia ikertzera animatzen zaituztet. 1907an, organoa Bidarteko Ilbarriz gazteluan zegoen, Biarritz inguruan. Gaztelu hori Espée-ko Baroi musikazale eta bitxiarena zen, eta kontzertuak eta inprobisazioak jotzen zituen, gonbidatu gisa Biarritzeko eta Pariseko goi-mailako pertsonak zituela. Organo horren zatirik handiena (bi teklatu) Usurbilgo Salvatore parrokiari saldu zitzaion 1920an, eta hainbat aldaketa egin ondoren, gaur egun, 3 teklatu eta pedaldun tresna zoragarri batez goza dezakegu: dudarik gabe, Usurbilgo organoa harribitxi bat da.

Nola ikusten duzu organoaren etorkizuna?

Donostialdean, talentu handiko organistek amaitu dituzte goi-mailako ikasketak.

→ Usurbilen eta inguruan, organo-ondare aparta dugu, eta organoaren etorkizunari dagokionez, arlo horretan lana dago. Ez bakarrik interprete gisa kontzertuak eskainiz, baita organista liturgiko gisa ere, eta hori beste aukera interesgarri bat da. Hala ere, organoa eskaintzen duten musika-eskolak oso gutxi dira, eta landu beharreko zerbait da, horegon baitaiteke benetako musika-harrobia. Ikasle horiek gradu profesionalean (oso ikasle gutxi daude Donostian) beren bidea egin dezaten bultzatzea, goi-mailako ikasketak egin ahal izateko. Nire esperientzia onagatik, biziki animatzen ditut gazteak organoa ikastera. Gure ondare organistikoari esker erreferente bat gara munduan, eta horrek esan nahi du zorte handia dugula. Beraz, aukera hori aprobetxa dezagun.

Noiz hasi zinen organoa jotzen? Piano eta klabezineko goi-mailako ikasketak amaitzen ari nintzela hasi nintzen instrumentura hurbiltzen, Francisco Escudero kontserbatorioan; duela 24 urte. Han, Esteban Elizondorekin ikasi nuen erdi maila, eta Musikenen amaitu nituen goi mailako ikasketak Esteban Landartekin. Jesus Martin Moro maisuarekin hobetu nituen ikasketak bi urtez, Pauen. Aldi berean, master-class ugaritan parte hartu dut nazioarteko maisu



Easo Gazte Abesbatzak eta Easo Kapera Gregorianistak jarriko diote ahotza 'Katedraleko meza' kontzertuari.

handiekin: bidaia zoragarria benetan.

Badirudi organoa jotzeak arazo bat duela. Ezin etxean entseatu, elizara joan beharra dago, ezta? Bai, non eta ez zaren L'Espéko baroia! Edonork ez du gaztelu bat hodi-organo bat eraiki eta han sartzeko. Esan

"GURE ONDARE ORGANISTIKO ZABALARI ESKER ERREFERENTE NAGUSI BAT GARA MUNDUAN"

behar dut hemen oso zorionekoak garela. Parroko eta organisten jarrera onari esker, organistok edozein organotara jo dezakegu mota guztietako erreperitorioak praktikatu eta prestatzeko. Hala ere, beste aukera bat da etxean organo elektronikoa bat izatea. Eliza batera joateko aukera

"INGURU HONETAN ZORIONEKOAK GARA. ORGANISTOK EDOZEIN ORGANO DUGU ESKURA HEMEN"

badugu, horrekin geratzen naiz.

Zeintzuk dira etorkizun hurbileko proiektuak?

Datozen hilabeteetan Euskal Herrian, Katalunian, Valentzian, Madrilen, Palentzian, Frantzian eta Belgikan izango ditut kontzertuak. Duela 3 urtetik hona, Musika Hamabostaldiko organoko nazioarteko zikloaren zuzendaria naiz. 2005. urte honetan laugarrena izango da. 15 kontzertu bi aste baino gutxiagoan antolatzea erronka handia da. Erronka zoragarria, asko gozatzen dudana. Kontzertuetako bat, beste behin, Usurbilen izango da, nola ez!

'Hitz Esana' Emakumeon Etxean

Ingeleseko 'Spoken word' formatuan eskainitako 'Hitz esana' ikuskizuna eskaini zuen Mejillon Tigre kolektiboak Emakumeon Etxean larunbat arratsaldean. Poesia errezitaldia bai, baina tradizioz oso bestelakoa.

Poesia egiteko modu kritikoa izanik, hainbat gairi taularatu

zituzten, eta barreak ere nagusi ziren: etxebizitza, gorpuzten nolakotasuna eta aniztasuna, sexu-indarkeria... Ikuskizun atipikoa osatu zuten, baina oso ondo hartua herriarren artean. Emakumeon Etxeko ganbara goraino betetzea lortu zuten bi poetek larunbat iluntzean.



Mejillon Tigre kolektiboko kideak, Emakumeon Etxeko ganbaran.



Argazkian, Eneko Goia alkatea eta Iñaki Almandoz. Bere hitzaldian, euskarara gerturatzeko gonbita luzatu zuen.

Donostiako Hiritar Merezimenduaren Domina jaso du Iñaki Almandozek

Donostian sortu arren, ama Usurbilgoa du eta lotura gehiago ere baditu herri honekin; besteak beste, NOAUA!ko bazkide edota Baba Beltz Txikiaren Kofradiako partaide delako.

Iñaki Almandoz Aranburuk jaso du, besteren artean, 2025eko Donostiako Hiritar Merezimenduaren Domina. Izan ere, 50 urte bete dituen Askatuak saskibaloitako taldeko sortzailetako bat eta lehendakaria da bera. "Bere historia Gipuzkoako saskibaloien historia da. 1975ean sortutako kluba prestakuntza-kategoria guztietan ari da lanean – baita profesionalean ere –, saskibaloien praktika sustatzeko eta saskibaloitako ez-profesionalean erreferente izateko", nabarmendu du Donostiako Udalak.

San Sebastian egunaren bezperan banatu zituen Gipuzkoako hiriburuko udalak domina hauek udaletxean bertan. Mestiza elkarteak, Gipuzkoako Elikagaien Bankua, Contxu Uzkuadun diseinatzailea eta Radio San Sebastian omendu dituzte aurtengoan. Eta haiekin, aipatu moduan,

Almandoz bera. Hiriarentzat eredu garrantzitsuak zituen bertako alkateak Donostiaren alde lan egindako omendu guztiak.

Usurbil gogoan

Domina hau berari ematea erabaki zuten eskertzearekin batera, hitza hartzeko aukera izan zuenean bidelagunak omendu zituen Almandozek; zendutako emaztea eta klubeko kideak oroitu zituen oso hunkituta. Era berean, hunkituta oroitu zuen baita Martuteneko baserrian jaio arren, uda garai luzeetako egonaldi herria izandako Usurbil. "Artze anaiak, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Joxe Angel Irigarai, Ez Dok Amaitu, Nestor Basterretxea, Remigio Mendiburu, Jose Luis Zumeta edo Juan Antonio Urbeltz ezagutu nituen". Bere esanetan, haiek ikusi, entzun eta ezagutzeak "inpaktu emozional handia eragin zidan, grabatua dudana".

Kultur sortzaileak oroitu arren, bere ibilbidea kirol munduari estuki lotua egon da. Martuteneko baserri batean jaiotzeak ez ziola eman berak gustuko zituen kirol jarduerak egiteko aukera, oroitu zuen. "Ondorioz, Athletico San Sebastianen amaitu nuen", gogoratu zuen.

1975ean Askatuak saskibaloitako taldea sortu zuten artean zen Almandoz. "Ezin zitekeen pentsatu, 50 urte geroago zuten aurrean agertuko nintzenik" zioen. Mende erdi honetan, bidelagun izandakoak oroitu zituen. Gertuko bi kideren heriotzak eraman zuen klubeko lehendakari zara. "Bertigo eta hanketan dardara handia sentitu nuen". Egun, "Askatuak taldeak bereari eusten dio eta 50 urte geroago ilusionatua jarraitzen du". Oroitu zuenez, klubetik bertatik 10.000 gazte donostiar, ehunka guraso eta entrena-

tzaile, eta hamarnaka kide igaro dira zuzendaritzatik.

Euskarara hurbiltzeko gonbita

Bere esanetan, saskibaloitako talde izateari utzi gabe, errendimenduz gain, kirolaren bidez pertsonak hezteko helburu duen baloreen eskola da Askatuak. "Elkartasuna, talde lana, esfortzuaren kultura, konpromisoa, integrazioa, boluntariora, egunero gazteen artean sustatzen ditugun baloreak dira". Inguruan klub bakarra da zioenez, desgaitasunen bat dutenen taldeari eusten diona.

Euskarari ere gorazarre egin nahi izan zion bere adierazpenean. "Nire desioa izango zen dena euskaraz egitea. Denok ulertzeko ez dut hala egin". Horregatik, euskarara hurbiltzeko gonbita egin zuen, geure hizkuntza ulertu eta ezagutzera, hitz egiteko. "Geure herriko, Euskal Herriko antzinako altxor handia da".



Jon Insausti zinegotzia eta Joseba Larratxe.

Kartela, Joseba Larratxerena

44 urteren ondoren, kartel ofiziala egitea erabaki du Donostiako Udalak. Joseba Larratxeren lanak "irudikatzen du seriootasuna, baina atzean ume baten irribarre pikariora marraztu du, haur dantborradaordezkatzeko", azaldu zuen Eneko Goia alkateak kartelaren aurkezpenean.

Odolaren Mintzoak Galizian eskaini du azkenaurreko kontzertua

Betiko agurtzear du bere ia hogeit urteko ibilbidea Odolaren Mintzoa talde usurbildarrak. Sortutako herrian, haien sorterrian eskainiko dute azken kontzertua larunbat honetan bertan, Usurbilgo herri sorkuntza oholtzaratuko duen jaialdiaren baitan.

Aurretik, ordea, azkenaurreko emanaldia eskaini dute, urtez urte harremana sendotzen joandako Galiziarekin. Gogoan izan, hango Loita Amada eta NAO taldeekin batera eskaini izan dituzte emanaldiak usurbildarrak bisitan joan izan direnean, baina baita galiziarrek gure artera etorri izan direnean ere.

Asteburuan herrikideak izan dira bertan. "Asteburu hau Odolaren Mintzotarrantzat opari bat izan da", berri eman dute haien sare sozialen bidez.

Eskertza bikoitza

Talde gisa eginiko bere ibilbidean zehar eginiko hirugarren eta azken bidaia, "zuek bihurtu duzue benetan berezi". Bidelagun izan dituztenei eskaini diete, "Usurbildik etorritako 15 lagunak. Ikaragarria izan da. Kolosala. Ahaztezina. Eskerrik asko, bihotz-bihotzez!".

Eskertza mezua helarazi diete baita, bidelagun izandako talde galiziarrei. Bide batez, "Azkenak" zikloko azken kontzerturako gonbita egin dute.



Aurreko asteburuan Galizian izan ziren. Larunbat honetan Usurbilen ariuko dira.

"Datorren larunbatean ospatuko dugu azkena. Gogoratu sarrerak aurretik erosteko azken eguna asteazkena dela", ohartarazi dute.

Odolaren Mintzoa: "Azkenak" agur jaialdia

Urtarrilak 25, larunbata

- Bazkalaurretik, Elektropapo herria girotzen.
- 13:30 Ekitaldia eta bazkaria Agerialdeko jantokian.
- Ondoren, Anuk eta Elene.

• 17:30 Kontzertuak frontoian: Viafara, Hysteria, Zapparra, Mihise, Txiskeroak, Ameba, Rukula, Odolaren Mintzoa, Dj Jotatxo.

• Bitartean, Ernairen aldeko txozna solidarioa.

Sarrerak eskuragarri:

- Aitzagan eta Txirristra tabernan nahiz usurbilkultura.eus plataforman.
- Kontzertuetarako sarrera: 10 euro.
- Kontzertuetarako eta bazkarirako sarrera: 25 euro.

TXINTXARRIK KAZETARIA BEHAR DU

Ostiraletatik igandetara lan egiteko

• Kontuan izango ditugunak:

- Kazetaritza, Komunikazioa edo pareko ikasketak.
- Euskara eta gaztelera ahoz eta idatziz menperatzea (gutxienez C1 maila izatea).
- Multimedia kazetaritza: sare sozialak, webgunea, edizio programak...
- Argazkilaritza eta bideogintza ezagutzak izatea.
- Lasarteoriatarra izatea edo herria ezagutzea.

Curriculumak urtarrilaren 26ra

bitarte jasoko ditugu:

txintxarri@ttakun.eus

txintxarri





"Futbola 2018an utzi nuen eta 2019ko urtarrilean Irisasi BTT proban hartu nuen parte lehen aldiz". JOSEBA UNDIANO

"Ez nuen Andatza ondo ezagutzen; proba honek aukera hori eman zidan"

IMANOL AGIRRETXE FUTBOL HEZITZAILEA

Hilaren azken igandean egingo den Irisasi BTT Hotzak Akabatzen proba gainean dugu, eta askok Imanol Agirretxe futbolearen irudikatuko baduzue ere, partehartzaileetako bat izango da.

Futbolearen egin zinen ezagun, baina noiztik ari zara bizikletan?

Futbola 2018 urte amaieran utzi nuen, eta 2019ko urtarrilean Irisasi BTTn hartu nuen parte. Nire lehen proba izan hura. Txirrindularitzara asko lotu naiz behin futbola utzita. Askok gustatu zitzaizkidan Irisasiko lehen esperientzia hura eta txirrindularitzak harapatu egin ninduen. Ordura arte, ez nuen Andatza ondo ezagutzen eta probak aukera hori ere eman zidan, beraz, anima dadila jendea Andatza ezagutzera. Orain bai mendian, bai errepidean ibiltzen naiz bizikletaz. Futbolari izan bitartean ez daukazu denborarik beste kirol batzuetako

probetan parte hartu edo entrenatzeko, oso buru-belarri zaude futbolarekin eta ez da bateragarria beste kirol jarduerak batzuekin. Mendiko bizikletak, gainera, badu arrisku puntu bat eta ez litzateke batere onuragarria izango futbolari batentzat besoa apurtzea denboraldi erdian. Elite mailan dabilen edozein kirolariarekin gertatzen da hori. Kirol horretarako prestatu eta horretan zentratzen da, azken finean.

Orain kirol gehiagotan zabilta.

Umetatik izan naiz oso kirolaria. Behin futbolearen sartuta beste kirolak alde batera uzten dituzu horretan zentratzeko,

baina behin futbola utzita aukera izan dut berriz ere beste kirol jarduerak batzuei helteko. Bizikletan hasi naiz asko, padelean zein frontoiko diziplina anitzetan. Ikaragarri ari naiz gozaten kirol guztietaz eta zoriontsu egiten naute. Kirola oso garrantzitsua da nire bizitzan eta beharrezkoa

"IKARAGARRI ARI NAIZ GOZATZEN KIROL GUZTIETAN ETA HORREK ZORIONTSU EGITEN NAU"

oreka izateko. Ezin naiz bi egun kirolik egin gabe egon, gaizki sentitzen naiz. Beraz, gimnasiora joaten naiz, frontoira edo aste honetan egin dudana bezala botak hartu eta Andatza-ra igo. Ondo sentiarazten nau kirolak.

Ibilbide luze eta laburrean hartu izan duzu parte?

Normalean, luzea egin ohi dut. Proba honek ematen digun onena da etxean ari garela jokatzeko eta indar gutxi baduzu ere, beti aurkitzen duzu modua horretatik behar bezala ateratzeko. Joan zen urtean ere luzea egin nuen. Ilobarekin atera nintzen eta luzean aritu ginen eta aurtengo asmoa ere hori da, ilobarekin eta proba luzean. Dena ondo baldin bada, espero dugu urte luzetarako plana izatea.

Markak apurtzen saiatuko zarete?

Oso lasai joaten gara. Proba oso polita da Andatza ezagutu eta mendiaz gozatzeko. Niri, normalean, bizikletan ibiltzen naizen proba guztietan gustatzen zait burua altxatzea. Leku eta paisaiez gozatzeko aukera ematen dute, eta horretaz gozatzeko gustatzen zait. Markak egitera doazenak behera begira joaten dira eta marka hori apurtzea izaten dute helburu, baina nire helburuak beste batzuk dira. Andatza ezagutu, hornidura lekuan geratu, jendearekin hitz egin eta orokorrean, giroaz gozatzeko aukera bikaina da. Antolaketa zoragarria da eta horrek giro ederra sortzen du. Amaierako festa hori ere azpimarratzekoa, sariekin eta parte hartzaileen artean sortzen den giroarekin. Poza ematen du herrian bertan halako proba bat eskura edukitzeak. Kirolaz gozatzeko beste aukera bat da.

Nola entrenatzen duzu probarako?

Urte batzuk badaramazkigunez Andatza, badakit zein



"Herriatik kanpo ere txirringularitza probetan ibiltzen naiz. 'Quebrantahuesos' egina dut eta aurten ere eman dut izena".

→ txoko dauden, nahiz eta ibilbidea beti sorpresa izan. Beti izaten da sorpresaren bat, baina Andatza nahiko ondo ezagutzen dut. Ez du sekretu handirik: entrenatu eta ibili. Gutxi entrenatuta bazabiltza, sufritzea tokatuko zaizu. Ni normalean errepedean ibiltzen naiz eta noiz-behinka mendira joaten naiz. Errepedean ibiltzeak hankak indartzen ditu, baina mendian teknika askoz ere gehiago behar da eta ordu batzuk pasatu behar dira gero gozatu ahal izateko. Bide errazetan gozatu dugu, baina bide estu eta teknikoagoetan pixka bat sufritzea tokatuko zaigu oso teknikoak ez garenoi. Mendiko bizikleta hartu ere ez dut egin azken aldian. Beraz, asmoa bueltaren bat ematea da proba aurretik, baina ezin bada zuzenean joango naiz.

Errepedetik mendira bizikleta ere asko aldatzen da.

Bi kirol oso ezberdin dira. Lotuta daude bizikleta bat dagoelako tarteko, baina ez du zerikusirik kirol batek bestearrekin. Mendian behera ez naiz oso azkar jaisten den horietakoa. Bideak jartzen dizkizun erronka txiki horiek pasatzeak

ematen du adrenalina puntu hori.

Hotza eta euria ohikoak izaten dira.

Badakizu zer toka daitekeen. Alde horretatik, badaukagu masokismorako joera hori. Urte batean gogoan dut Txokoalde parean kazkabarrak harrapatu gintuela eta kas koetan izugarrizko soinuarekin ibili ginela, eta elurra ere egin izan digu. Hala ere, mauka motzetan ateratzea ere tokatu izan zaigu eguraldi epel-epelarekin. Urtarrilean probak egiteak hori du: inoiz ez dakizu zer tokatuko zaizun. Nik eguraldi on eta lehorra nahiago, aukeran.

Herrian antolatzen diren kirol txapelketa gehiagotan ere parte hartu izan duzu.

Uxue Trail egin izan dut, baina hurrekin oinezko txangoan.

"URTARRILEAN PROBAK EGITEAK HORI IZATEN DU: INOIZ EZ DAKIZU ZE EGURALDI MOTA TOKATUKO ZAIZUN"

Palan ere parte hartu izan dut urtero, nahiz eta azken urtean ez den txapelketarik izan. Herriko txapelketetan parte hartzea gustatzen zait eta oso garrantzitsua iruditzen zait herrian kirol proba ugari izatea. Herri kirolaria da Usurbil. Jende asko ikusten da korrika, bizikletan zein martxan, eta horrelako probak osasungarriak izateaz gain, herriarentzat ere onuragarri dira sortzen den giroagatik. Herriatik kanpo, txirringularitza probetan ibiltzen naiz 'Quebrantahuesos' egin dut eta aurten ere izena eman dut horretarako hirugarrenez. Asteburuetan lanpetuta ibiltzen naiz, baina proba gutxi batzuetan parte hartzen dut urtean zehar. Iratixtem egin izan dut bai errepedekoa, bai mendikoa. Oso proba politak dira, baina ondo prestatu beharrak daude gehiegi ez sufritzeko.

"HORRELAKO PROBAK OSASUNGARRIAK DIRA, ETA HERRIARENTZAT ONURAGARRIAK"

Irisasi BTT proban izena emateko azken egunak

Irisasi BTT proba hileko azken igandean izango da, urtarrilaren 26an, goizeko 9:00etan hasita eta izen-ematea zabalik egongo da hilaren 23 arte kronoak.com webgunearen bidez.

Txaleko bat opari

Aurten, gainera, opari moduan txaleko bana izango dute partehartzaile guztiek.

Bi ibilbide

Bi ibilbide izango dira aukeran: "bat luzeagoa eta teknikoagoa eta bestea laburragoa eta denek disfrutatzeko modukoa". Zeharkaldi horretan zehar, "anoa gune handi bat egongo da eta amaieran, frontoian beste bat".

Urtarrilak 26 igandea

- Ordua: 09:00.
- Irteera: Mikel Laboa plazatik.
- Bi ibilbide izango dira aukeran:
 - Motza 23km eta 650 metroko desnibelarekin.
 - Luzea 32km eta 950 metroko desnibelarekin.
- Izen-ematea: urtarrilaren 23ra arte, 30 euroren truke kronoak.com atarian.
- Oharra: izena ematen dutenek txaleko bat jasoko dute opari.
- Antolatzailea: Irisasi BTT.



Lilatoia prestatzeko talde bat osatu da Usurbilen eta Garazi Artolak egingo ditu prestatzaile-lanak.

"Usurbilgo emakumeek espero ez nuen poza eman didate"

GARAZI ARTOLA KIROLARIA

Emakumeon Etxean 60 pertsonak izena eman dute Lilatoian parte hartzeko, eta otsailaren 23 bitarte, prestaketa saioak antolatu dituzte Garazi Artolaren gidaritzapean.

Asteazkenean hasi ziren Lilatoirako prestaketak.

12 pertsona animatu ziren; 60 pertsonak eman dute izena Emakumeon Etxearen izenean parte hartzeko. Ez nuen espero. Usurbilen korrika ibiltzen garen neskok elkar eza gutzen dugu, baina badirudi badagoela jendea ezkutuan. Horregatik 60 emakumek izena emateak benetan harritu ninduen. Jendea jada egunerokotasunean murgildu da eta ulertzekoa izan zitekeen inor ere ez animatzea entrenatzera asteazken arratsalde batean. Usurbilgo emakumeek espero ez nuen poza eman didate.

Nola planteatu dituzu entrenamenduak?

Korrika hasten zaren momentuan, helburu batzuk jartzen dituzu. Hemen garrantzitsua da honakoa pentsatzea: lehiaketa hau egin nahi dut, baina nola? Oso azkar eta zure markaren bila ateratzen bazara ez dago gaizki, baina gure helburua gozatzeraz ateratzea izango da. Sufritu gabe. Asteazkenean hurbildu zen gehiengoa korrika egitera ohitu gabekoa zen. San Silbestre edo lasterketa txikitxoren batean parte hartutakoren bat... bat bakarra zegoen Behobia egindakoa. Hastea izaten da garrantzitsuena; ni

ere hasi nintzen noizbait. Normalean, hastean 30-40 minutu jartzen dira, baina ez da ibilbide osoa korrika egiten: ibili eta pixkatxo bat korrika. Horixe da asteazkenean egin genuena. 45 minutu egin genituen: sei kilometro. Usurbilen entrenatzeko ibilbide

"EMAKUMEEN ALDEKO FESTA BAT DA LILATOIA ETA USTE DUT HORRELA HARTU BEHARRA DAGOELA"

batzuk dauzkagu. Zubietako buelta egitea aukera ona da, baina talde handian joateko errepide hori ez zait gustatzen. Txokoaldeko joan-etorria ere oso polita da, baina neguan ez dago argirik. Beraz, pabeloietara joatea tokatu zaigu. Kilometro bat dauka buelta bakoitzak eta ondo hartu zuten han entrenatzeko erabakia. Ondo bukatu zuten. Hizketan joan ziren bidean, eta hori garrantzitsua da. Hitz egiteko moduko erritmoa jarri behar da hasteko. Serieak egitea ere ondo dago, betiere erritmoa behar bezala egokituta; egingo ditugu gure saioetan. Entrenamenduak beti berdinak ez izatea beharrezkoa da monotonian ez erortzeko. Pixkanaka hobetzen da kirol hone-tan, beraz, helburu txikiak jarri behar dira.

Nolako proba izaten da?

Nik ez dut sekula egin, baina bost kilometrokoa da. Izango da tartean baten bat oso azkar egingo duena eta topera aterako dena, baina emakumeen aldeko festa bat da eta uste dut horrela hartu beharra dagoela. Bost kilometro horiek batzuek oinez egingo dituzte, beste batzuek korrika. Zein taldetan edo zein erritmotan zoazen, horren arabera, korrika egiten hasteko ere metro batzuk oinez egin beharko dituzu aurrekoak korrika hasi arte. Izan daiteke oso proba polita korrika egitera animatzea, eta agian, bertatik korrikalari berriak ere etorriko dira.

Lilatoian taldean aterako zarete?

Denak batera apuntatze horrek talde izaera emango die emakumeei. Oker ez banago, talde handientzat sariak izaten dira, gainera. Berriz azpimarratu nahi dut, Usurbilen 60 pertsona elkartzea ikaragarria iruditzen zaidala. Jendeak modu indibidualean ere izena eman du, ez zeukatelako taldearen berri edo dena delakoa.



Lilatoia prestatzeko talde bat elkartu da. Oraindik bada izena emateko aukera. Garazi Artolak gidatuko ditu entrenamenduak.

Lilatoirako prestatzen hasi dira

Helmuga otsailaren 23ko Donostiako 31. Lilatoia izango dute. Abiapuntua, aldiz, Kalezarko Pelaiocenean, Emakumeon Etxearen atarian izan zuten urtarrilaren 15ean.

Argazkian ageri direnak, Lilatoirako entrenatzen hasi ziren iragan astean eta hala egin asmo dute, hurrengo asteazken arratsaldetan 18:00etan, Garazi Artolak zuzendu eta Pelaiocenea paretik abiatuko diren prestakuntza saioetan.

Hilabete barru Gipuzkoako hiriburuan egingo den Lilatoia prestatzea izango dute xede albiste honi atxikitako argazki-koeketa hurrengo asteetan nahiz

proba egunean batuko diren herriko emakume gehiagok. Izan ere, elkarrekin entrenatu eta Lilatoian ere batera parte hartzeko deia egin zuen Emakumeon Etxeak urte amaieran.

Lilatoian izena emateko epea urtarrilaren 23an itxiko da

Bi talde osatzeko asmoa agertu zuten; oinez edo lasterketa parte hartzeko. "Lilatoiko izen-emate ofiziala irekita

dagoen bitartean aukera izango da Usurbilgo taldean izena emateko ere: Lilatoiko antolatzaileen arabera, urtarrilaren 23ra arte edo plaza kopurua bete arte emango dute horretarako aukera (lehenengo gertatzen denaren arabera)", azaldu dute asteotan Udaletik. Horretarako, lehenbizi Emakumeon Etxera jo behar da:

Emakumeon Etxea

- emakumeonetxea@usurbil.eus
- 943 371 112.
- Orduetgia:
 - Astelehen, asteazken eta ostiraletan: 10:00-13:00.
 - Astearte eta ostegunetan: 10:00-13:00 / 17:00-20:00.
- Helbidea: Belmonte kalea, 8 (Pelaiocenea).

"Ibai-Ondo Backyard" erronkan laguntzeko deia

Apirilaren 12ko asteburuan, estreinakoz Santuenean jokatuko den "Ibai-Ondo Backyard" erronkarako laguntza behar dute antolatzaileek. Horretarako, interesdunek izena emateko aukera dute jada. Bete beharreko formulario bat eseki dute ekimen honen sare sozialetan:

- Instagram: @ibai_ondo_backyard
- Facebook: Ibai-ondo Backyard.

Buztinarekin jolasean Santuenean

Tailer hau antolatu du Santuenea Kultur Elkartek larunbatean, urtarrilaren 25ean, 11:00-13:00 artean auzoko ludotekan, Santuenea 16an. Sarrera 3 euro ordaindu behar da, bazkideek sarrera doakoa izango dute.

Izena eman behar da alde zuretik

Izena aurrez eman behar da, santueneake@gmail.com helbidean. Gehienez 20 haurrentzako tokia egongo da. Antolakuntzak ohartarazi duenez, "ez ahaztu mantal bat ekartzea eta zure artelana etxera eramateko kaxa bat! (tupper handi bat edo kartoizko kaxa txiki bat)".

3. Xake Topaketa ostiral honetan hasi eta datorren astera arte luzatuko da

Bi tailer antolatu dira. Lehen 6-9 urte bitarteko gaztetxoek zuzendua egongo da. Bigarrena, 10 urtetik gorakoentzat pentsatuta dago. Biak ala biak Sutegi udal liburutegiak antolatu ditu eta liburutegian bertan egingo dira. Sutegin bertan eman behar da izena.

Urtarrilak 24, ostirala

17:30-19:00 3. Xake Tailerra: 6-9 urte arteko haurrentzat. Oharra: Oinarrizko ezagutzen azalpena eta torneo txikia.

Urtarrilak 31, ostirala

17:30-19:00 3. Xake Topaketa: 10 urtetik gorakoentzat.

Oharra: parte hartzeko xakean jokatzen jakin behar da. Parte hartzaileek elkarrekin jokatuko dute.

Bideratzailea:

Breogan Estévez, Sutegi udal liburutegiko liburuzain laguntzailea eta xake jokalaria.

Izen-ematea:

Aurrez, Sutegi udal liburutegian bertan.



Breogan Estévezek gidatuko du tailerra.



Iraitz Lizarragak zuzendu du 'Itzal(iko) bagina' bertso-antzerki ikuskizuna.

"Gidoiko bertso idatziei antzerki ikuspegia gehitu diet"

IRAITZ LIZARRAGA AKTOREA, ANTZERKI ZUZENDARIA

Otsailaren 2an igandearrekin, Janire Arrizabalaga, Izaro Bilbao eta Araitz Katarain bertsolari gazteak Sutegiko oholtzara igoko dira. 'Itzal(iko) bagina' bertso-antzerki ikuskizuna eskainiko dute. "Gazte hauek ahalmen handia dute pil-pilean diren kontuak detektatzen":

Bertsoa oinarritzat duen antzerki ikuskizun bat dela dio sinopsiak. Nola uztartu dira bi lengoaiak?

Gidoia bertso-sorta baten gisan aurkeztu zidaten. Ikuskizunaren egituraren bertsoak agintzen du. Hiru partehartzaileak bertsolariak dira eta beraiek sortu dituzte antzezlaneko bertsoak. Nik egin dudana izan da gidoiari antzerki ikuspuntua gehitzea. Bertsolaritza formatzen aritu garela esan daiteke.

Janire, Izaro eta Araitz bertsolariak antzezlaneko hiru pertsonaiak gorpuzten dituzte.

Bai, gainera euren izenekin ari dira. Pertsonaia batzuk inter-

pretatu arren, euren esperientzia pertsonaletan oinarritzen dira eta horregatik mantendu dituzte euren izen propioak.

Antzerkiaren kodeak beste batzuk dira. Hirurak bertsolariak izanik, antzezlanerako lanketa berezia egin behar izan dute?

"ITZAL(IKO) BAGINA IKUSKIZUNAREN EGITURAN BERTSOAK AGINTZEN DU"

Hirurak bertsolariak dira, peto-petoak. Izaro Bilbao antzerki munduan ibilia zen aurretik baina besteak ez. Beraientzat erabat berria izan da esperientzia. Oholtzara ohituta dauden arren, antzerkiarena berria izan da beraienez. Obra hau taularatu au-

"PLANTEATZEN DIREN GAIK UNIBERTSALAK DIRA. EZ DIRA MODAZ PASATZEN"

rretik, ikastaro espres bat jaso dute.

Oholtza behintzat, ez zitzairen arrotza egingo.

Egia da bertsolariak badutela oholtza gainean presentzia jakin bat. Baina horrek ez du zerikusirik antzezle batek behar duen presentziarekin. Asko landu behar izan dugu gorpuzta eta espazioa. Bertsolariak asko esaten dute ahotsaren bidez. Gehien kostatzen zaiguna izan da gorpuztetik adieraztea, espresatzea. Eta hor jokoan sartzen dira espazioa, besteekiko harreman eszenikoa...

Tematika aldetik, pil-pilean dauden auziak lantzen dira antzezlan honetan.

Hala da. Bertso-sorta hau jaso nuenean, sorpresa handia hartu nuen. Gu baino askoz gazteagoak dira. Maiz ezbaian jartzen ditugu gaur egungo gazteak, baina mila buelta ematen dizkigute. Kezkatuta dauden gazteak lan handia egiten ari dira eta hiru neska hauen proposamenean adibidez, sakontasun handia topatu nuen. Ahalmen handia dute gure gizartean pil-pilean diren kontuak detektatzeko.

Emanaldi asko egiten ari dira. Oihartzun handia izaten ari den seinale, ezta?

Bai, bertsolaritza zirkuituan bereziki zeresana ematen ari da. Gazte asko mugitzen dira euren emanaldietan. Proposamenak berak jakinmina sortzen du gainera, ez baita ohikoa bertsolariak antzerki munduarekin performatzen ikustea.

Gazte jendearentzako bakarrik da hortaz? Hala helduentzat ere interesgarri al da?

Oso interesgarria da adin guztientzat. Gai unibertsalak dira, ez dira modaz pasatzen. Sutegira etortzen diren guztiak antzezlanean planteatzen diren kontuekin identifikatuko dira. Generazio ezberdin bat izan arren, helduek euren burua islatuta ikusiko dute.

'Itzal(iko) bagina', bertsoa oinarri duen antzerki ikuskizuna

Otsailaren 2an igandea, arratsaldeko 18:00etan arituko dira Sutegin. Emanaldian zehar, "itzalek leku garrantzitsua hartuko dute. Izan ere, teladun hiru markoren atzean proiektatuko dira zenbait pasarte. Arropen eta argien koloreekin jolastuko da".

Sarrerak salgai

10 eurotan usurbilkultura.eus plataforman edota NOAUA!ren egoitzan. Bazkideek 8 eurotan eskuratu ahaliko dituzue kultur elkarte honen egoitzan.



'Itzal(iko) bagina' antzezlenerako sarrerak usurbilkultura.eus web orrialdean eskura daitezke, edota NOAUA!ren egoitzan.

'Iparrera begira' jarriko gaitu Orbeldi Dantza Taldeak

Usurbilgo dantza taldeak NOAUA! Kulturaldia abiaraziko du otsailaren lehenean, ikuskizun berri batekin.

Dantza taldea soilik ez, sor-kuntzara bideraturiko bilgunea da Orbeldi. Izan ere, besteak beste, urtero antolatzen duten Dantza Egunaren baitan, aurreko hilabeteetan ondutako ikuskizuna aurkeztzen dute jendaurrean. "Borobil" izan zen iazkoa. Aurten, apirilaren 5ean ospatzekoak diren egun horren baitan ere ziur aurkeztuko dute lankidetza ardatz duen sorkuntza lan berria.

Dantza Egunetik haratago, ordea, emanaldi gehiago plazaratzen dituzte, esaterako inauterietan edota urteko beste zenbait uneetan.

Adibidez, 2023ko abenduan Sutegin oholtzaratu zuten Xabier Lizardiren "Bihotz-begietan" liburuko poesia Gipuzkoako euskal dantza

tradizionalarekin uztartu zuena.

"Inguru bat ahantzia geratzen dena"

Bigarren urtez jarraian, azarotik otsailera aurreratu du NOAUA! K.E.-k Kulturaldia. Kultur ziklo honi hasiera emango diona Orbeldi dantza taldea izango da, Sutegiko auditorioan oholtzaratuko duen 'Iparrera begira' ikuskizun berriarekin.

Dantza taldetik aurreratu dutenez, Ipar Euskal Herrira begira jarraituko gaitu emanaldi honek. Izan ere, "ohituraz euskaldunok badugu gure inguruan zer gertatzen den jakiteko berri, baina bada Euskal Herrian inguru bat ahantzia geratzen dena gehienetan, Ipar Euskal Herria. Jakina de-



Emanaldia otsailaren 1ean izango da, iluntzeko 19:00etan Sutegin.

nez Lapurdi, Baxenafarroan eta Zuberoan badute dantzarako ohitura, baita hauekin jolasteko gaitasuna ere".

Horregatik, ikuskizun honetan, "hiru herrialde haue-tan dantzatzen dituzten dantza ezberdinak plazaratuko dizkigu, bolantetatik

kontradantzetara, jauzietatik makil jokoetara. Hain gertu bezain urrun sentitzen dugu Iparralde batzuetan, eta emanaldi honetan bertan ikusi dezakegunaren zertzelada bat aurkituko dugu", iragarri dute.

Gonbidapenak eskuragarri

Emanaldia otsailaren 1ean izango da, 19:00etan Sutegin. Sarrerak doakoak izango dira, baina gonbidapen gisa eskuratu beharko dira aurrez, bideotatik; usurbilkultura.eus plataforman edota NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan.

"IPARRALDEKO HIRU HERRIALDEETAKO DANTZAK ESKAINIKO DITUGU SUTEGIN"



Telmo Irureta da filmeko protagonista nagusia.

Alex Telloren 'Animo' lehen film luzearen estreinaldia

Telmo Irureta protagonista duen Alex Telloren estreinako film luzea dakar NOAUA! K.E.-ren Kulturaldiak; besteak beste, Usurbilen grabaturiko ikus-entzunezkoa izango dena.

Lehen aldiz, Sutegin proiektatuko du Tellok otsailaren 7an.

2017an hasizena ontzen 'Animo' izeneko metraje luzeoko film hau, 'Azken Muxua' ize-

neko film laburrekin. Telmo Irureta du protagonista nagusi, Aitor izango da filmean. Bere "interpretazioak inklusioari beste buelta bat ematen dio bertan. Familia, homosexualitatea eta eguneroko hainbat egoera ikuslearentzako identifikagarriak gertatuko dira".

Hala dio sinopsiak. "Aitor etsirik eta Leire kezkatutik. Mirenek ez du loturirik. Itxasok badu kanta berririk, aldiz, Amets dabil isilik. Hemen inork ez du barre egiteko motiborik. Bizitzaren aurrean, ihesbideak baino, aukeran hobe heldulekuak izatea". Sekuentzia ugari Usurbilen grabatu ziren eta usurbildar askoren laguntza izan du Tellok filmaren sorkuntza prozesuan.

Otsailaren 7ko emanaldirako sarrera doakoa izango da, baina gonbidapena eskuratu beharko da bideotatik; usurbilkultura.eus plataforman edo NOAUA! K.E.-ren egoitzan.

'Miñan' antzezlan, NOAUA! Kulturaldia amaitzeko

Amets Arzallusek idatziz jasotako 'Miñan' antzezlan bilakatu ekarriko du Artedramak otsailaren 9an Sutegiko oholtza gainera.

Sarrerak eskuragarri
Antzezlanaren arratsaldeko 18:00etan hasiko da. Hitzordurako sarrerak salgai dituzue 10 eurotan, usurbilkultura.eus plataforman edo NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan. NOAUA! kobazkideok 8 eurotan eskuratu ahalko dituzue kultur elkartearen egoitzan.



Otsailaren 8an, Itoizen inguruko dokumentala ikus ahal izango dugu Sutegin.

'Itoiz. Udako sesioak' filma ikusteko aukera

Itoiz talde mitikoa bueltan datorrigu, oraingo honetan, NOAUA! Kultur Elkartearen eskutik eta ez kontzertuan, film

formatuan baizik. Izan ere, 'Itoiz. Udako sesioak' izeneko proiektzioa programatu du kultur elkarte honek.

Juan Carlos Perez gogoeta sakon batean murgilduko da argitaratu gabeko zinta bilduma baten aurkikuntzaren ondorioz. "Alde batera utzi nahi izan ditu taldeak momenturik gorenean pop estilora eman zuen aldaketa, eta ostean desegin izana", sinopsian jasoa datorrenez. "Itoiz musika taldearen lider izandakoak bidaia katartiko bat hasiko du, iraganarekin adiskidetzeko balioko diona; taldeak 70. hamarkada hasieran Rock progresiboan murgilduta igarotako urteak bergogoratuko ditu bertan".

Otsailaren 8an iluntzeko 19:00etan Sutegin izango den proiektzioarako sarrerak aurrez eskuratu ahalko dituzue sei eurotan usurbilkultura.eus plataforman edota NOAUA! ren egoitzan. NOAUA! ren bazkideek 4 eurotan erosi ahalko dituzte kultur elkarte-ko egoitzan soilik.

Inauteri Festarako gaia zehazteko garaia

Martxoaren 1ean ospatuko dugu Usurbilgo Inauteri Festa. NOAUA! Kultur Elkartearen prestaketa lan batean den honetan, aurreko urteen ildotik, moztortzeko gaiaren aukeraketa zuen esku jarri nahi du.

Proposamenakegiteko aukera duzue egun hauetan, bide hauetatik: elkartea@noaua.eus helbidera email bat bidalita, edota whatsapppezu bat helarazi dezakezue 688 807 336 telefono zenbakira.



Lehen hiruhilekoan, Lur Gallastegiren 'Limoiondoaren loreak' liburu irakurri dute.

Aginagako eskolakoak Lur Gallastegirekin solasean

Bilboko idazle Lur Gallastegiren liburu irakurtzen aritu ostean, egilearekin solasean aritzeko aukera izan dute Aginagako eskolakoek. Kronika hau bidali dute NOAUA!ra.

Tertulia Lur Gallastegirekin

Aginagako Herri Eskolako 6. mailako ikasleok Lur Gallastegik idatzitako "Limoiondoaren loreak" liburu irakurtzen ari gara.

Zer esanik ez, oso gustukoa izan dugula. Kontakizunak,

bai Donostiara, bai Nikaraguara eraman gaitu eta zer bait gehiago jakiteko asmoz, eskolako guraso baten bitartez, egilearekin harremanetan jarri gara.

Hitzordua Zarauzko kafetegi batean jarri dugu, izan ere, Lu-

rrek bertako institutuan egiten du lan eta "kafe edo kolakao" tertulia burutu dugu.

Kafetegian sartu bezain laster ikusi genuen Lur gure zain eta segituan eseri ginen bere ondoan, gosaria atera orduko galdera batzuk egiten hasi ginen. Azkar erantzun zituen galdera guztiak. Informazio asko eman zigun liburuari buruz eta aitortu zigun lan handia eman ziola, batez ere, Nikaraguako ohi-turak, urteetako gertakariak eta beharrezkoa zuen informazioa lortzeko orduan. Limoiondo edo laranjondo izenburua jartzerakoan ere zalantzak izan zituela kontatu zigun. Honekin batera, aipatu zuen liburuaren ilustratzailea ez zuela ezagutzen, izan ere, argitaletxeak jarri baitzuen. Eskerrak irudigileak herrialdea ezagutzen zuela. Horrela, bere marrazkiak bertako bizipenekin lotu zituen.

Berarekin ordubete gutxi gora behera egon ondoren, joateko ordua heldu zen. Bikain pasa genuen berarekin eta oso jatorra iruditu zitzaigun. Ondoren, Zarauzkit paseotxo bat egin eta berriz eskolara bueltatu ginen. **Ibai, Manex eta Uxuri, Agiñako Herri Eskola**

Etorkizuneko sagarrondoei buruzko ikastaroa

"Etorkizuneko sagastiak: mentu-oin berriak: Geneva belau-naldia" izena du Alkartasuna kooperatibak eta Sagardoaren Unibertsitateak urtarrilaren 23rako 18:00etan Potxoenean antolaturiko aurtengo lehenengo ikastaroak. "Txertaketa belaualdi berri honen ezau-garri nagusiak azalduko dira: gaixotasunekiko duen erresistentzia handiagoa da, ekoizpen handiagoak lortzen ditu eta luraren nekea ez du pairatzen". Aitor Etxeandiak bideratuko duen saiorako izena doan eman ahalko da bideotatik:

943 361 114

alkartasuna.eus



Aitor Etxeandiak gidatuko du saioa.

'Izan Bai' musika talde berriak prest du estreinako lana

Bi usurbildar kide dituen musika taldeak urtarrilaren 31n kaleratuko du bere lehen sor-kuntza lana. "Izan Bai" taldeak prest du bere lehen diskoa, "Dena galdu baino lehen" izenekoa. Bederatzi abestikoa, haietatik hiru entzungai dituzue Youtuben duten kanelean. Taldeko kide usurbildarrak Ixak Arruti eta Martin Larrañaga dira. Haiekin, Ibon Aginaga eta Urtzi Olaziregik osatzen dute "Izan Bai". Zumaiaiko Ozen estudioan grabatu dute disko hau.

Aroztegiko proiektuaren aurkako manifestazioa

Lekarozko (Baztan, Nafarroa) hirigintza proiektua gerarazteko otsailaren 1ean Iruñean antolaturiko manifestazio nazionalarekin bat egin eta hara joateko autobus zerbitzua antolatu du herritar talde batek. Eguerdiko 12:00etan abiatuko da autobusa, Oiardo kiroldegitik, eta izena Aitzagan eman behar da alde zurretik. Mobilizazioa, gainera, zazpi lagun epaitzera doazela salatu eta haiei elkartasuna helarazteko baliatuko da.

Jabetza eskolako ikastaroetan izena emateko epea laster irekiko da

Jabetza eskolako ikastaroak, liburu aurkezpenak, Martxoaren 8ko ekimenak, zerbitzuak... Otsailetik uztaileira prestatuturiko eskaintza aurkeztu du Kalezarko Pelaiocenean kokaturiko Emakumeon Etxeak. Eskaintza honen egitaraua etxetz etxe banatuko du urtarrilaren 23an, Udalberri aldizkariarekin batera.

Bestalde, jabetza eskolako ikastaroetarako izen-ematea urtarrilaren 27an irekiko da. Datorren astean emango ditugu xehetasun gehiago.

Ate irekien eguna Udarregi ikastolan

"Ikastolari buruzko informazioa jaso nahi baduzu edo gu ezagutzera etorri nahi baduzu, urtarrilaren 25an atek irekiak izango ditugu", udarregi.eus bidez iragarri dutenez. Hala egin nahi dutenek web orrialde horretan bertan duten formularioa osatu beharko dute.

Informazio gehiagorako:

943 36 12 16

usurbil@ikastola.eus

Aurrematrikula, otsailaren 3an 2025-26 ikasturterako ikaste-txeetan HH, LH eta DBH zikloetan matrikulatzeko garaia laster hasiko da. Aurrematrikulazio kanpainari otsailaren 3an ekingo zaio. Ohi bezala, bi aste iraungo du epealdi horrek, otsailaren 14ra arte.



Orientazio kirol proba bat izango dugu otsailaren 9an Usurbilen.

IX. Gipuzkoako Orientazio Liga Usurbildik abiatuko da

Gipuzkoako Orientazio Taldeak herrialde mailako Orientazio Ligaren bederatzigarren edizioa antolatu du. Otsailean 9an hasi eta azarora bitarte, sei proba jokatu dira.

"Orientazio proba bat, mapa batean adierazitako ibilbide bat, naturan jarritako balizak bilatuz egitean datza", Gipuzkoako Orientazio Taldearen esanetan. Hala, "parte hartzaile bakoitzak, mapa bat eta kontrol txartel bat izango du, bertan baliza bakoitza zulatu beharko delarik".

Proba abiatutakoan, "parte hartzaile bakoitzak, maparen laguntzarekin, lehen baliza bilatu beharko du, eta behin topatutakoan, balizako pintzarekin zulatu beharko da, kontrol txartelean. (Baliza bakoitzak zulatu ezberdina dauka, eta ondorioz, antolaketak ziurta dezake baliza orotan izan dela parte hartzailea)". Ibilbide horretan zehar, "parte hartzaileak antolaketak ezarritako ordenean bilatu beharko ditu balizak, eta behin azkenekoa bilatutakoan, helmugatit pasako da (bertan izango da azken

baliza) kontrol txartela eman ez".

Hiru ibilbide aukeran

Usurbilgo orientazio proba, Gipuzkoa mailako ligaren bederatzigarren edizioari hasiera emango diona, otsailaren 9an jokatu da aipatu moduan, igande goizez. Zailtasun maila ezberdineko hiru ibilbide izango dituzte aukeran parte hartzaileek. "Lasterketa ingurune urbanoan zehar jokatu da batez ere, baina, noizbehinka, parke edo baso txikiren batetik pasako da", ohartarazi dute antolatzaileek.

Ibilbideari dagokionean, berrikuntza bat ere iragarri dute Gipuzkoako Orientazio Taldeak. Izan ere, "Usurbilen herri barruko orientaziorako mapa berria estreinatuko dugu, Ricardo García Dengrak 2024an kartografiatua".

Ingurunea errespetatzea "gure kirolaren lehentasunez

ko araua da!", gogorarazi dute. Honenbestez, "derrigorrezkoa izango da herri osoan dauden paperontziak erabiltzea eta hiri ingurua, parkeak edo berdeguneak ez kaltetzea. Era berean, hiri elementu guztien erabilera arduratsua egin beharko da".

Irteerak, bi orduko tartean

Askatasuna plazatik abiatuko dira, lehiaketa gunea gertu egongo da. "Irteerak modu mailakatuan emango dira, parte-hartzaileak bi minutuz behin aterako direlarik".

Antolatzaileek ohartarazi dutenez, "lasterketa hasteko, ez da beharrezko izango bertan egotea goizeko 10:00etako. Nahikoa izango da irten nahi den ordua baino minutu batzuk lehenago lehiaketa gunera azaltzea". 10:00-12:00 artean abiatu beharko dute parte hartzaileak Askatasuna plazatik.

"MAPA BATEAN ADIERAZITAKO IBILBIDE BAT OSATU BEHARKO DA. NATURAN JARRITAKO BALIZAK BILATU BEHARKO DIRA"

Otsailaren 9an, Askatasuna plazatik abiatuta

Otsailak 9, igandea

- 09:30 Harrera gunearen irekiera Askatasuna plazan.
- 10:00 Lehen irteerak.
- 12:00 Azken irteerak.
- 14:00 Helmuga itxiera.
- Irteera: Askatasuna plaza.
- Lehiaketa gunea: Usurbilgo herri gunea.
- Ibilbide motak:
 - Gorria: teknikoa eta sasoi onean egotea eskatuko du.
 - Laranja: ez hain teknikoa, baina orientatzeko ezagutzak eduki beharko dira.
 - Horia: hasiberrientzat eta familientzat.

• Izen-ematea: banaka nahiz taldekakoak, otsailaren 6ko gaueko 22:00ak arte, eu.deporticket.com helbidean.

• Informazio gehiago: info@gotorientazioa.org gotorientazioa.org

• Antolatzailea: Gipuzkoako Orientazio Taldea.

• Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Gipuzkoako 9. Orientazio Liga

- Otsailak 9: Usurbil.
- Martxoak 16: Oiartzun-Urkabe.
- Apirilak 5: Gazume.
- Ekainak 7: Hondarribia.
- Urriak 12: Lizarrusti.
- Azaroak 16: Hernani.



"Gure kirolaren lehentasunezko araua ingurunea errespetatzea da".

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 3 logelako bizilekua behar dugu alokairuan hartzeko. 688 653 441.

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m² lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajejan egon da. 620098748

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. 722 248 869.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Pertsona bat bilatzen dut. DBHko ikasle bati astean hirtan klase partikularrak emateko. Ikasturte oso-

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

rako konpromisoa: Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 647 742 588.

Pertsona bat bilatzen dut, DBHko ikasle bati egunero klase partikularrak emateko. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 647742588

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Paperak egunean ditudan neska bat naiz eta interna moduan edo orduka zaintza lanak edo garbiketa lanak

egiteko lan bila nabil. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 607455413.

Etxeko lanak / zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat naiz. Goizez (9:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-21:00) aritzeko prest. Telefono zenbakia: 609647728

Pertsona helduak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. Harremanetarako: 628 459 625

BESTELAKOAK

Frantses irakasle baten bila ari gara, DBHko ikasle bati klaseak emateko. 615 758 476.

M365 Xiaomi patinete elektrikoa saltzen dut. 160 euro. Kaskoa eta ordezko gurpila opari. 656734413 (whatsapp bidez idatzi).

Bufanda handi bat topatu nuen hilaren hasieran Txokoalde inguruan. 656723650 (Jorge).

Futbol partidak

Haranen

Urtarrilak 24, ostirala

- 20:00 Preferente neskak:

Usurbil F.T.-Orioko F.T.

Urtarrilak 25, larunbata

- 10:00 Infantil mutilak:

Usurbil F.T.-Orioko F.T.

- 11:30 Kadete neskak:

Usurbil F.T.-Arrupe Chaminade

- 15:30 Preferente mutilak:

Usurbil F.T.-Euskalduna S.D.

Urtarrilak 26, igandea

- 17:00 Ohorezko jubenilak: Usurbil F.T.-Real Union Club SAD

Haranetik kanpo

Urtarrilak 25, larunbata

- 09:00 Infantil mutilak, Villabonan: Billabona B-Usurbil F.T. "C"

- 09:00 Infantil neskak, Martutenen: Martutene K.E.B-Usurbil F.T.

- 11:00 Infantil neskak, Donostian: Intxaurdi D-Usurbil F.T. "B"

Urtarrilak 26, igandea

- 10:40 Kadete neskak, Berion: Santo Tomas Lizeoa-Usurbil F.T.

- 14:00 Infantil txiki, Martutenen: Mundaiz S.C.D.-Usurbil F.T.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkarte Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiaro Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potoxenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

Eskubaloia Oiardon

Urtarrilak 25, larunbata

- 10:00 Jubenil mutilak:

-Usurbil K.E.

-Saieko Oxkarbi taberna

- 16:00 Senior neskak:

-Urbil-Usurbil K.E.

-Aloña Mendi.

Pilota Usurbilen

Urtarrilak 24 ostirala, 17.45

Infantilak eskuz binaka 3. Mailan:

-Pagazpe

-Hondarribia

Infantilak eskuz binaka 2. Mailan:

-Pagazpe 1

-Mundarro 2

Jubenilak eskuz binaka

Udaberri 1. Mailan:

-Pagazpe 2 (Aburuza-Errasti)

-Gazteleku

HILDAKOAK



Mercedes Arranz García
Urtarrilaren
19an hil zen
84 urterekin.

Boleibola Oiardon

Urtarrilak 25, larunbata

12:00 Infantilak: Usurbil-Aldapeta

Urtarrilak 26, igandea

11:00 Jubenilak: Usurbil-Fortuna

ZORION-AGURRAK



Zorionak Joanes!
7 urte egin dituzu. Besarkada handi bat familia guztiaren partez.



Zorionak Josu eta aitona!
Muxu handi bat etxekoan partez.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTEGUNA 23

USURBIL Alkartasuna kooperatibaren ikastaroa

"Etorkizuneko sagastiak", Aitor Etxeandiaren eskutik.
18:00 Potxoenean.

OSTIRALA 24

USURBIL Xake tailerra udal liburutegian

Nori zuzendua: 6 urtetik gorako haurrentzat.
17:30 Suteği udal liburutegian.

USURBIL Zumartek 40 urte: "Katedraletako meza" ikuskizuna

Easo Gazte eta Easo Kapera Gregorianista abesbatzen eskutik.
19:00 Salbatore elizan.

LARUNBATA 25

USURBIL Odolaren Mintzoa agurtzeko jaialdia

Sarrerak eskuragarri: Aitzagan eta Txirrista tabernan nahiz usurbilkultura.eus web orrialdean.
Egun osoko jarduna.

IGANDEA 26

USURBIL Irisasi BTT Hotzak Akabatzen

Bi ibilbide izango dituzte aukeran.
09:00 Mikel Laboa plazatik.

USURBIL Odol Emaileen Eguna

Artzabal jatetxean, omenaldia eta bazkaria.



Easo Gazte Abesbatzak eta Easo Kapera Gregorianistak (irudian) abestuko dute.

'Katedraletako meza' ikuskizuna Salbatoren

Zumarte Musika Eskola 40. urtemuga ospatzen ari da ikasurte honetan. Ekitaldi ezberdinak iragarri dituzte eta horietako bat ostiral honetan izango da, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Salbatore elizan. Bertaraten direnek "Katedraletako meza" ospetsuaz gozatzeko aukera izango dute. Easo gazte eta Easo kapera gregorianistaren ahotsak eta Ana Belén García organista izango dira protagonista nagusiak.

Saio gregorianoa

"Katedraletako meza" Licinio Reficek musikagile italiarrak konposatu zuen. Zumartek aditzera eman duenez "meza gregorianoak XX. mendeko erdialdean ugaritu ziren, nagusiki gotzainek bere egoitza propioetan, katedraletan, ematen zituztelako.

Zumarte Musika Eskolak antolatu du ekimena eta Salbatore elizaren, Udalaren eta Aizpurua autobusak-en laguntza jaso dute.

Ostiral honetan xake tailerra

"Saio honetan, xakearen oinarriak erakutsi edota errepatatuko dira, eta torneotxo bat egingo dugu denon artean". Ostiral honetan, arratsaldeko 17:30ean Suteği udal liburutegian. 6 urtetik gorako haurrei zuzenduriko hitzordua izango da.

Beste hiru bisita gidatu asteotan**Urtarrilak 25, larunbata**

• 11:00-12:15 Salbatore elizaren ondarea ezagutzeko bisita.

Urtarrilak 29, asteazkena

• 10:00-11:00 Zero zabor bisita gidatua.

Urtarrilak 31, ostirala

• 10:00-11:15 Zaintzaren Usurbil bisita gidatua.

Izen-ematea:
650usurbilbizi.eus

Gipuzkoako Orientazio Liga

Usurbil izango du abiapuntu otsailaren 9an. Izena emateko epealdiak zabalik jarraitzen du. Banaka nahiz taldeka egin daiteke, otsailaren 6ko 22:00ak arte, eu. deporticket.com helbidean.

Informazio gehiago:

info@gotorientazioa.org
gotorientazioa.org



ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN

943 360 321

noaua@publizitatea.eus

TXAPELDUN

ARDANGELA



EGUNEKO MENUA
PLATEAK
OGITARTEKOAK
RAZIOAK
ARROZAK
OILASKO ERREA

Muna Iurra 2, 943 49 88 83

OTSAILAK 1 Larunbata

IPARRERA BEGIRA ORBELDI dantza taldearen emanaldia

Ordua: 19:00

Non: Sutegiko auditorioan

Sarrerak: doan, gonbidapena eskuratu beharko da



OTSAILAK 2 Igandea

ITZAL(IKO) BAGINA Ikuskizuna

Ordua: 18:00

Non: Sutegiko auditorioan

Sarrerak: 10€ (Bazkideek 8€)



OTSAILAK 7 Ostirala

ANIMO Film estrenaldia

Ordua: 19:00

Non: Sutegiko auditorioan

Sarrerak: doan, gonbidapena eskuratu beharko da



OTSAILAK 8 Larunbata

ITOIZ UDAKO SESIOAK Film emanaldia

Ordua: 19:00

Non: Sutegiko auditorioan

Sarrerak: 6€ (Bazkideek 4€)



OTSAILAK 9 Igandea

MIÑAN Antzerkia

Ordua: 18:00

Non: Sutegiko auditorioan

Sarrerak: 10€ (Bazkideek 8€)



Sarrerak eta gonpidapenak: usurbilkultura.eus webgunean edo
Noaua!ko egoitzan egongo dira eskuragarri

Antolatzailea:



Laguntzailea:



Usurbilgo Udala

NOAUJA! Kulturaldia 2025

TXOTX!!

URDAIRA

Sagardotegia

943 37 26 91

Aginaga

Astelehenak eta Astearteak itxita

  @urdairasagardotegia | www.urdairasagardotegia.com

www.iruinsagardotegia.com



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Jai egun gauak
ITXITA

*Aurten ez da Txotx-ik egongo,
sagardoa botilan

Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) •  943 55 69 81



www.sidrassaizar.com



SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita


Tfno-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com



Astelehena eta Asteartea: **ITXITA**
Asteazkena eta Osteguna: **20:00-00:00**

AIALDE BERRI

SAGARDOTEGIA

 **943 36 50 31**

Ostirala eta Larunbata: **13:30-18:00 / 20:30-01:00**
Igandea: **13:30-18:00**

 **Santu enea Aialde-berri, 20170, Usurbil**